

Egiatzko bizipenen egiatzko fantasia

Jose Luis Padrón

HARA ba, joan den maiatzaren azken egunetan Susa argialetxeak Jon Gaztelumendiren (Orereta, 1961) lehen liburua aurkeztu zuen: *Haizea mindu gabe*. Ez da sekulan argitaratzen hasteko beranduegi. Hare gehiago, ohiturazko eta interesezko sorkuntza merkatu honekin koleratzen jarrita, literaturaren teiltuaren angelutik gure begiek zerua bilatu eta aurkitzen dutenean. Horixe bai atsegina. Zeren eta, irakurleari egiten diodan gonbidapen honetan, berrikerian galtzeko denborarik ez dago, liburu ederra dastatu eta kitto!

Ederra. Ez nion liburuari adjetibo hori jarri nahi, batez ere egileak preso bizitzaz kartzela gaineko ipuinak kontatzen dizkigulako, eta lerroetan zehar bere egoera hartara aldatzen gaituenean, aurrena gogoz, eta gero haragiaz, irakurketak beste zerbaitez pentsatzera bortxatzen zaituelako, espetxearen inguruaz, esaterako, edo batez ere beren guraso eta lagunminetaz, eta ikaragarri gaizki sentitzen bait zara. Mundu gris eta zerratua irifarre ikaragarri zurbiltasunean. Egunen, orduen eta gauzen zoratzerrainoko errepikapen hartan. Presondegiaren erdian aurkitzen dugu Gaztelumendiren etxea. Aspalditik gainera. 1986ko urtarrilean atxilotu zutenetik, ia gauero esnarazi du, piska bat nahiz asko, askatasun pentsamentuak.

Askatasun egarriaren hots guztiak dauzka beregan, hortik pasa denak bakarrik dakien moduan kanporatuak. Hala ere, hilabeteak eta hilabeteak paret-arte batean ehortzirik pasa ondoren, etzaio bihotz-estura ahuldu, bere begiek ez dute etsitzen, nekadararen azken ziegatik irtetzen denean ere aberastua egiten du aurrera hurrena deskalabroa etortzen denean ezinak eta minak trankiltzeko. Buru osasun ederra erakusten du horrek hala ere, horrelako egoera agoantatzeak. Eta egia esateko, Jon Gaztelumendi burnizko kaxa bizitzaren habi bihurtzeko gauza izan da. Irakurketaren hasiera pentsatutakoaz guztiz bestera gertatzen da amaieran. Berriro ikasten dugu ingurune krudel berri batean irtenbide berriak ezagutzen, pertsona izateko modu berriak. Horregatik diot liburu ederra dela, ez dudik egin, horrelako tokian bere bizipenak ankerrak eta tristeak izan arren oso, narrazioaren elkarrekin datorren infinito gozo irigarriak, hainbeste gertaera lehor pasatakoan, «haizea mindu gabe» txoriak bezala berri kokatzen zaitu bizitzan. Gaztelumendiren hitzak heriotza-urratzaileak dira. Giza-duintasunaren egurra du sugai. Askatasuneko hilotza berak hartua. Arnasa egin behar, ez da besterik.

Gainera, horretantxe du *Haizea mindu gabe* liburuak bere indarra,



bere enkantua, krudeltasuna behin ere ezereztu gabe hunkitzea, bere poesia. Hamaika ipuinetako pasadizo asaldagarriak zorion modu bat itxuratzeko. Presondegiaren bizitza patio izugarri itogarri bat bezala da, preso dagoenarekin amaratua. Azken buruan hobe dela etorkizuna maitatzea, orain osoan joka leher egitea baino. Ez dio inori beldur eman behar ulertzeak.

Niretzat egiatzko nobedadea. Han eta hemen, zitalkerien bilduma oso bat mende batez beterik edukitzeko adina eta gehiago, espetxeen alde eta kontra mintzatzen da jendea, (ba al dago askatasunak ahaztuko duen kartzelarik?) baina ergela eta zapalgarria litzateke gogo onez proposatzen duan ipuin bilduma horren azalaren azpian, zein baino zein finago, goitik behera dardarka dagoen bihotza, edonon idazle senaren taupada ez ikustea. Hortxe gordeta daukazu egiatzko bizipenen egiatzko fantasia. Jon Gaztelumendiren *Haizea mindu gabe* zerua jasotzen du, eguzkia bueltaka dabil itzalaren inguruan. Eta barrenean dabilkion airea, kimua, txoria edota euria aski du, gure bihotzean kartzelarien miaketetatik gaindi liluragarriko zerbaitez gordetzeko.

Urruti joan daitezela *Haizea mindu gabe* ene hitz urdinak haiekin, ziegez ere hagitz haruntzago, bakardade zehazkabeetarantz, ezin sumatuzko askatasundun begizuloetara.

Karlistaldia

Felipe Juaristi

UDA luzea denez, eta denbora nolabait engainatu beharra dagoenez, karlistaldiei buruzko liburuak irakurtzeari ekin nion. Epikoak dira batzuk, historikoak besteak, baina badira aleren batzuk eleberri antzekoak direnak. Egia esan behar badut, horiek ditut maiteen. Bi aipatu nahi nituzke bereziki: Unamunoren «Paz en la guerra» eta Txillardegiren «Putzu». Unamunok, bilbotarra izaki, Bilboko setioaldia kontatzen digu. Eleberri konplexua da eta bertan ageri dira Unamunoren hainbat ideia, gerora eta bermatuagotzen joango direnak. Esaterako: historiaren eta barne-historiaren arteko aldeak eta ifrentzuak. Unamunok uste zuenez, alde bakarretik doa beti Historia, barne-historia ez beti alde beretik. Historia-liburuetan ageri diren gertaerek osatzen dute, noski, Historia; barne-historia, ordea, ez da historia-liburuetan ageri. Unamunok maiteago du barne-historia, petsonaia xumeena baita.

Txillardegik ere bereizten ditu bi kontzeptuak, oso nabarmen gainera. Badakit ez dela Txillardegi oso Unamunozale, baina bataren eta bestearen artean uste baino antzeko kontu gehiago daude (hala uste dut). «Putzu» izeneko pertsonaia karlista sartu eta Karlos Setimoren aldeko boluntarioekin biltzen da, gerra egiteko. Txillardegik gerrako gorabeherak kontatzeaz gainera, per-



tsonaiaren barne-gatazkaren berri emango digu, haren aldatetaren lekuko egingo gaitu irakurleok oro. Txillardegirentzat, Unamunorentzat bezala, karlistaldia nolabaiteko ereduia izan da. Biek gerorako ikasgaiak atera nahi izan dituzte. Dena dela, Txillardegi ez da Unamunoren ondorioetara iristen.

Literatura konparatiboa egin nahi duenak badu non hasi aztertzen. Karlistaldiak erdal idazleen eta euskal idazleen arabera, ez da lan samurra alajaintan. Karlistaldiak mendea bukatzearen denean. Susmoa baitut gaur egungo euskal literatura, joera berrienak baztertuz, ez ote den ari literatura nazionaletik abiatzen ari. Ez da Txillardegi bakarrik, baina harenak tesi kutsua du. Badira beste zenbaitzuk, azkenaldi honetan nobelaren bat argitaratu dutenak. Historiari begi bakarrez keinu egin eta gaurko aktualitatearen adiskide egin nahi dute, finean. Historia baita denon ama, edo amaorde. Literatura nazionala ikusten dut asmo eta helburu. Hori ere ez da gai txarra gogoeta egiteko, baina ziur naiz ez direla gure arteko eztabaidak bide horretatik joango. Txillardegik zeresan haundia du politikan ez ezik, baita literaturgintzan ere. Baina nago politikaren zuhaitzak itzala ematen diola idazleari.

Nobela, esan dezadan, arin irakurtzen den horietakoa da eta, akats txiki batzuk dituen arren, oso duina da, bai egituragatik nola idazkeragatik.

Txillardegi/PUTZU/Elkarlanean. Donostia, 1999, 385 orr.